



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

GUZTION DONOSTIA



UNA CIUDAD COMPARTIDA

DONOSTIAREN ALDEKO HITZARMENA

EAJ eta PSE-Eeren arteko Gobernu Hitzarmena

2019-2023 agintaldia

- 1. HIRI-HITZARMENA: EAJ ETA PSE-EE ALDERDIEN GOBERNU HITZARMENAREN ZIOAK**
- 2. GOBERNU ONAREN PRINTZIPIOA**
- 3. EKINTZA-ILDO ESTRATEGIKOAK**
- 4. APLIKAZIO-EREMUA**
- 5. HITZARMENAREN HEDADURA**
- 6. UDAL GOBERNUA**

1. HIRI-HITZARMENA. EAJ ETA PSE-EE ALDERDIEN ARTEKO GOBERNU HITZARMENAREN ZERGATIA

Donostiako herritarrek, hauteskundeetan izandako parte-hartze altuarekin (%65,17), oniritzia eman diote azken urteotako gobernu-hitzarmenaren bidez lortutako egonkortasunari. Azken hauteskunde hauetan EAJ izan da alderirik bozkatuena, 10 zinegotzi lortu ditu (34.115 boto). PSE-EE hirugarren indarra da eta 5 ordezkari lortu ditu (16.929 boto).

Hauteskunde horietan bigaren lekuan EH Bildu geratu da, eta eutsi egin die lehendik zeuzkan 6 zinegotziei (20.517 boto); PP eta Elkarrekin Podemos gelditu dira laugarren eta bostgarren postuetan, hiruna ordezkari erdietsita (10.263 eta 9.485 boto hurrenez hurren).

Hauteskundearen emaitzek argi utzi dute herritarrek babesa eman diotela EAJ eta PSE-EE alderdien arteko akordioari. Bi alderdien botoen batura %53ra heltzen da, 27 ordezkariatik 15 eskuratu dituzte. Donostiak aurrera egiten jarrai dezan, gehiengo egonkorra ziurtatuko duen ezberdinen arteko akordioa da aukerarik onena; erronka estrategikoei aurre egiteko, aurreko legegintzaldian abiatutako egitasmo eta planak burutzeko.

Dokumentu honek askotariko hiri-eredu bat lortzeko hitzarmena jasotzen du; aurrerapena sustatuko duen hiria; egitasmo eta erronka nagusiak elkarrizketaren eta ezberdinen arteko akordioaren bidez lantzeko dituen hiria. Dokumentu hau erantzukizun-eremuak leialtasunez eta kooperazioa sustatuz kudeatzeko konpromisoa da, hitzarmen honetan zehazten diren kudeaketa-elementuen bidez. Hori da EAJ eta PSE-EE alderdien arteko Gobernu Hitzarmenaren espiritua, 2019-2023 agintaldian Donostiako Udalerako akordioa ezartzeko. Gobernu zabal eta egonkorra, Donostiak aurrera jarrai dezan; konpromiso politiko bat donostiarrekin lanean jarraitu ahal izateko; hiriaren eta herritarren interes orokorrak indarrez defendatzeko.

Gizarte, ekonomia, kultura, hezitzaile eta kirol alorreko eragileak hiriaren garapenaren protagonista aktiboak izatea nahi dugu, ongizatean, bizitza kalitatean eta gizarte-lurralde kohesioan aurrera egiten jarraitzeko. Azken urteetako gobernu indartsua, lidergo-ahalmena duena, Donostiako gizarte dinamiko, askotariko eta irekiarentzat. Erakundearen eta herritarren arteko kudeaketa partekatua eta erantzunkidetasuna, Donostiaren egungo eta etorkizuneko erronkei elkarrekin aurre egiteko. Eta donostiar bakoitzari bere bizi-proiektua baldintzarik onenetan garatzeko abaguneei emango dion hiria nahi dugu, lanerako aukerak emango dituen, garapen kultural eta pertsonala ahalbidetzeko modua eskainiko duena.

Donostiak ezagutzaren eta berrikuntzaren hiria izan behar du, Gipuzkoaren izaera ekintzaile eta industrialari erabat lotuta. Zientzia eta teknologia, zerbitzu aurreratuak eta sormenaren ekonomia dira gure indarguneak. Eta hor dugu bide garbi bat lehiakorrak izaten jarraitzeko, ikerketari, garapenari eta berrikuntzari lotutako ekonomia garatzen. Horri esker, gure gazteei beren hirian garatzeko aukera eman ahal izango diegu, baina Donostiara etorri nahi duten pertsonentzat ere erakargarria izatea lortuko dugu. Hala ere, helburu hori eskuratzeko, oztopo nagusi bati aurre egin behar diogu: etxebizitza eskuratzeko zailtasunari. Gai honek ahalegin berezia eskatuko digu datozen urteetan.

Gure hiriak balio partekatuetan sinesten duen komunitate bat izan behar du. Denontzat lekua izango duen hiria. Gizarte-inklusioan, gizarte kohesioan, gizon eta emakumezkoen arteko berdintasunean aktiboki engeiatuko den hiria, giza eskubideekiko begirunea jarririk bizikidetzarako oinarri gisa; giza-eskalako hiria, atsegina, abegitsua.

Donostia irekia, europarra, dinamikoa eta askotarikoa eraiki nahi dugu; izaera euskaldunetik abiatuta, nortasun hori garatu eta indartuko duena; kulturaren, sormenaren eta aniztasunaren euskal hiriburu izaten jarraituko duena.

Eta hori guztia esparru ugari hartuko dituen garapen iraunkorraren aterkipean lortzeko gai izan behar dugu. Klima aldaketaren aurkako borrokan ekintza partekatuak bultzatu behar ditugu: ekonomia zirkularra eta inguruarekiko hiritarren hezkuntza bultzatuz, eta jasangarritasuna Udal Gobernuaren ekintza publikoetako oinarritzko konpromisoa izango da.

Amesten dugun Donostia lortzeko bidean, Udalak eraginkorra izan behar du. Horrek, erakunde gisa, gauzak egiteko modu berri eta hobeak bilatzera behartzen gaitu, herritarrekin elkarlanean, gardentasun eta eraginkortasunez. Erreferentziazko hiria izan behar dugu arazoei eta etorkizunak ekarriko dizkigun erronkei irtenbideak eraginkor eta jasangarriak aurkitzeko orduan.

2. GOBERNU ONAREN PRINTZPIOAK

Donostiako Udala, bere eskumenen barruan, hiriaren kudeaketan eta jardueran eragile aktiboa izango da. Funtsezkoa da lan, gizarte eta kultura testuinguru bat sortzea, helburuak lortu ahal izateko. Kudeaketa Gobernu Onaren printzipioetan oinarritu nahi dugu:

- Herritarrentzako Gobernu irekia: gardentasuna, informazioa eta herritarren parte-hartzea.
- Zerbitzu publikoak etengabe hobetzera bideratutako Gobernua.
- Gardentasunean, integritatean, eraginkortasunean eta kontuak ematean oinarritutako kudeaketa.
- XXI. mendeko administrazio bat: udal administrazioaren eraldaketa eta berrikuntza bultzatuko duen gobernua.
- Udal Ogasunaren eta Finantzen kudeaketa zorrotza.
- Udalalaren kudeaketarako zeharkako planak bere baitan hartuko dituen:
 - Etxebizitza plana
 - Euskara plana
 - Berdintasun plana
 - *DSSklima 2050* ekintza-plana
 - Gazteria plana
 - Donostia Lagunkoia
 - DonostiaUP Enplegu Plana
 - Turismo Jasangarriaren Plana

3. EKINTZA-ILDO ESTRATEGIKOAK

EAJren eta PSE-EEren artean 2019-2023 agintaldirako adosturiko ekintza, egitasmo eta helburu estrategikoen plangintza, 10 ildotan ardaizten da:

1. Kalitatezko enpleguaren eta garapen ekonomikoaren aldeko apustua.
2. Donostiar guztien gizarte-kohesioa lortzeko lan egin.
3. Etxebizitzarako sarbidea erraztu eta Donostian hirigintza zaindu.
4. Balioekin eta giza-eskubideekin konprometituriko hiria izaten jarraitu.
5. Berezko nortasunari eutsi, eta erreferentziazko hiria izaten jarraitu euskararen, kulturaren, sorkuntzaren eta aniztasunaren alorretan.
6. Hiri jasangarriaren aldeko apustua, ahalegin berezia eginez klima aldaketaren aurkako borrokan.
7. Zerbitzu publikoak indartu gure hiria irisgarria, garbia eta zaindua izan dadin.
8. Auzoen arteko oreka eta lurralde koherentsia bultzatu.
9. Gizon eta emakumezkoen arteko benetako berdintasunaren alde eta indarkeria sexistarekin bukatzeko lan egin.
10. Hirian ohitura osasungarriak sustatu, jarduera fisikoaren eta kirol praktikaren, eta emakumeek berdintasunean kirolean parte hartzearen bidez.

1. Kalitatezko Enpleguaren eta garapen ekonomikoaren aldeko apustua egin

Gure helburua enpleguaren eta garapen ekonomikoaren alde apustu egitea da, Donostia oparoagoa, biziagoa eta dinamikoagoa izan dadin, eta hiri koherentsuagoa eta bidezkoagoa eraiki ahal izateko. Helburu estrategikoak hauek dira:

- Pertsonengan oinarritutako garapen ekonomiko baten alde egin, donostiarren ongizateari lotua, kalitatezko enpleguarekin, eta gazteei hirian bertan lan egiteko aukera emateko gai izango dena.
- Berrikuntza eta teknologia, zientzia eta prestakuntza sustatu, eta, bereziki, lurraldeko industria-jarduerarekin oso lotuta dagoen zerbitzuen sektorearen kualifikazioa bultzatu.
- Etorkizuneko sektoreen eta balio erantsi handia duten etorkizuneko sektoreen aldeko apustuari eutsi, hala nola bio-sanitarioa, elektromugikortasuna edo zibersegurtasuna.

- Gure industrialdeak birkalifikatu.
- Turismo iraunkorrari ekin eta kalitatezko merkataritzaren eta ostalaritzaren aldeko apustua sendotu.
- Etorkizuneko gastronomia-estrategia birformulatu hiriko eragileekin batera.

2. Donostiar guztien gizarte-kohesioa lortzeko lan egin

Maila guztietan bizi-kalitatea bultzatuko duen hiria lortzeko lan egitea ildo estrategiko bat da, inor bazter utzi gabe. Horretarako, honako hauek landuko ditugu:

- *Donostia Lagunkoia* hiriko Planaren bitartez, komunitatea ehundu, sektoreko eragile publikoen eta ekimen pribatuaren lan koordinatuaren bidez.
- Lehen arretaren hobekuntzan oinarritutako gizarte politikak bultzatzen jarraitu; gizarte-bazterkeriaren prebentzioan; haurrei eta familiei lagundu, laguntza behar duten pertsonei; indarkeria pairatzen duten emakumeei; ahultasun egoeran dauden adineko pertsonei.
- Kirolaren aldeko apustua egin gizarte-kohesiorako, osasunerako eta berdintasunerako tresna gisa.
- Hezkuntza-zerbitzuaren etengabeko hobekuntzaren aldeko apustua egiten jarraitu, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan jardun; Haurreskolen sarea zabaldu; eskola-azpiegituretan inbertitu; aniztasunari balioa ematen dioten politikak bultzatu; gazte donostiarren artean irakurketa sustatu. Azken batean, hiri hezitzailea bultzatu.
- Gainerako administrazioekin lankidetzan, Donostiatik igarotzen diren migratzaileak artatu.
- Donostiarren eta kanpotik datozenen bizikidetzarako gune eta zerbitzu publikoak kudeatu.

3. Etxebizitza eskuratzea erraztu eta Donostiako Hirigintza zaindu

Donostiaren berezko erakargarritasunak etxebizitza elementu erabakigarri bihurtzen du higiezin merkatuan. Horren ondorioz, prezioek gora egiten dute eta etxebizitza eskuratzea zaildu egiten da. Arazo horri aurre egin eta gazteei bizi-proiektu duin bat garatzeko aukerak emateko, bizitzaren zikloan zehar sortzen diren etxebizitza-premiei erantzun ahal izatea bermatzeko, honako neurri hauek hartuko ditugu kontuan:

- Etxebizitza Plana garatu, eta beharrezko plangintza onartu, 4.000 etxebizitza berri eraikitzea sustatzeko.
- Etxebizitzen banaketaren alde egin, familien tamainaren bilakaerara egokitzeko.

- Formula berritzaileen aldeko apustua egin: elkarlaneko etxebizitzak, etxebizitza kooperatibak, alokairuko etxebizitzak, zuzkidura-apartamentuak.
- Etxegintza erakunde publikoan: *Etxebizitzaren arloko informazio eta laguntza zerbitzua* sortu, eta etxebizitza-zerbitzu publikoa berbideratu. Horren bidez, etxebizitzen esleipena, horien erabileraren kontrola eta alokairurako etxebizitzak eskura jartzea da helburua.
- Hiri-Antolamenduko Plan Orokor berria idatzi, ingurune naturalaren eta hiri eraikiaren arteko orekari eusten lagunduko duena, eta horri esker, dagoeneko eraikitako inguruak josten lagunduko duena: Urumea ibarra (Loiola Ibarra, Txominenea, Antzieta, Sarrueta eta Trinkete), Tabakalera ingurua, Altza-Jolastokietako bigarren fasea, Easoko trenbide-hondartza errekuperatu eta hiriko beste zenbait guneri heldu. Besteak beste, Infernua eta Illarra Ibaetan.
- Hirigintzaren eta arkitekturaren ondarearen babesaren aldeko apustua egin, EHOBPB (eraikitako hirigintza ondarea babesteko plan berezia) berrikusita.
- Itsasertzeko hiru hiri-mugarriak zaindu eta balioetsi, hala nola Haizearen Orrazia, Santa Klara uharterako itsasargia eta Sagues.

4. Balioekin eta giza-eskubideekin konprometituriko hiria izaten jarraitu

Gure helburua balioen eta giza eskubideen aldeko apustua egiten jarraitzea da, herritarrak espiritu kritikokoan hezita. Horretarako, honako hauek landuko ditugu:

- Gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasunarekiko konpromisoa, aukera berberak izateko.
- Genero-indarkeriaren eta sexu-askatasunaren aurkako delitueei aurre egiteko plangintza.
- LGTBIQ+ eskubideen defentsa
- Giza Eskubideen sustapena, guztion arteko bizikidetzarako oinarri gisa.
- Gure hirian giza eskubideen urraketa larriak ezagutarazi.
- Garapen-bidean dauden herrialdeetan lankidetzaproiektuak bultzatu eta abian jarri.

5. Berezko nortasuna duen hiria, eta erreferentziazkoa Euskararen, Kulturaren, Sormenaren eta Aniztasunaren alorretan

Gure helburua gainerako entitate eta eragileekin lanean jarraitzea da, euskararen ezagutza eta erabilerara bultzatzeko, Donostiak Kulturaren eta Sormenaren esparruetan erreferentziazko hiria izaten jarrai dezan. Horretarako:

- Hurrengo Euskara Plangintza landuko dugu.
- *Ekolingu*a saioak bultzatzen jarraituko dugu.
- *Merkataritzan eta Ostalaritzan euskaraz* programarekin aurrera egingo dugu.
- *KEES* metodologiarekin lanean jarraituko dugu, hiriko kirol-klubekin lankidetzan.
- Donostian egin nahi dugu pilotaje lana hurrengo Euskaraldiari begira, “belarriprest” rola sakonago landu ahal izateko.
- *Parketarrak* ekinbidearekin lanean jarraituko dugu.
- Donostia Kulturaren (hiriko kultur ekintzen ardatz nagusian) gogoeta egingo dugu, egiten daki-guna indartu eta hobetzeko; joera berriak eta kultura kontsumo-ohiturak aztertzeke; hirian sormena eta aniztasuna bultzatzeko; kalitatezko kultur ekipamenduetan egin beharreko inbertsioak egiteko; kultur eragileekin hausnarketa partekatua egiteko.
- Hiriko kultur egitasmo berrietan lan egingo dugu, hala nola Cristina Iglesiasen proiektua itsasargian eta Urgull mendiarentzat plan integrala.
- Donostia lurraldeko beste kultur jarduera guztien sarbide eta erreferente izan dadin lan egingo dugu.

6. Hiri jasangarriaren aldeko apustua, ahalegin berezia eginez klima aldaketaren aurkako borrokan

Hiria da elkarrekin bizitzeko espazio nagusia, bertan paseatzen gara, bizi, erlazionatu... Horregatik, partekatzen dugun gune publikoa bereziki zaindu behar dugu, Ingurumenari arreta berezia jarrita. Honako lan-ildoak sakonduko ditugu:

- Jarduera berriei ekin, *2050 klima* estrategiaren ikuspegitik, hiri jasangarri baten alde apustu egiteko, lurralde gehiago okupatzea mugatuz; pertsonen eta salgaien mugikortasunean *zero emisioa* sustatu; ekonomia zirkularraren aldeko erronka, *zero hondakin* politikarekin; azpiegituren eraikuntza, erabilpen eta mantentze lanetan energia-eraginkortasuna lehenetsi.
- Mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua egin, oinezkoentzat hiri bat bultzatuta; garraio publiko kolektiboaren kalitatea hobetu; Dbus-en flota AEA (autobus elektriko adimenduna) sistemaren bidez elektrifikatu.

- Hirigintza-jarduera berrietan lan egin, klima-irizpide jasagarriekin, HAPN-en (hiri antolamendurako plan orokorra) irizpideak txertatu, plan berezietan eta neurri fiskal eta ekonomikoe-tan trantsizio energetikoa eta klimatikoa errazteko.

7. Zerbitzu publikoak indartu hiri irisgarri, garbi eta zaindua izateko

Segurtasuna eta garbitasuna hiri baten bizi-kalitatea baloratzeko ezinbesteko adierazleak dira. Udalak, beste administrazio publiko batzuekin koordinatuta, espazio publikoan bermatu behar ditu zerbitzu horiek, eta irisgarritasuna bultzatu. Zentzu horretan, hauek dira gure lan-ildoak:

- Aurrera jarraitu, Donostia irisgarritasun unibertsalean erreferente izateko, irisgarritasun-plan bat onestuta. Hori guztia herritarren parte-hartze prozesu zabal baten ondorio izango da, eta urte anitzeko aurrekontuaren oinarriaz.
- Herritarren Segurtasun planaren lidertza eraman, alkatea buru, Ertzantzarekin batera koordinazio-planei eutsiz; herritarrekiko harremanak indartu, beharrak antzemateko, barne-antolaketa-eredua hobetzeko eta ekipamenduetan eta teknologia berrietan inbertitzeko.
- Babes Zibileko planak eguneratzen jarraitu, hala nola Udaleko Larrialdietarako Plana eta Suteen Protokoloa; udal-eraikinen autobabeseko planak eguneratu, eta sentso kopurua handitu, balizko uholdeen aurrean erantzuna hobetzeko.
- Ahalegin handiagoa gune publikoak garbitu, mantendu eta kudeatzeko orduan, beti ere irizpide jasagarriak kontuan hartuz; bilketa pneumatikoaren azterketa, tamaina handiko hondakinen programa, Parke eta Lorategietako plan zuzentzailea abian jarri, iturri publikoak eta hiri-altzariak mantendu eta hiriko lanen koordinazioa hobetu.
- Saneamendu publikoaren sistema eguneratzeko, komun publiko berriak jartzeko eta udal eraikinen instalazioak eguneratzeko inbertsioekin jarraitu.
- Gune publikoaren gizalegezko eta erabilera oneko kanpainak bultzatu.

8. Auzoen arteko oreka eta lurralde kohesioan

- Oinarrizko ekipamenduak ezartzeko eta diseinatzeke orduan auzoen arteko oreka eta beharrak kontuan hartuko dira.
- Aurrekontu parte-hartzaileetan herritarrek egindako proposamenak kontuan hartzearen
- Ekialdeko Barrutia kontsolidatu

9. Gizon eta emakumezkoen arteko benetako berdintasunaren alde eta indarkeria sexistarekin bukatzeko lan egin

- Udalaren eguneroko kudeaketak eta politika publikoen diseinuak helburu bezala izango ditu gizon eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna
- Genero Ikuspegia, udal ekintza eta politika guztietan txertatu.
- Genero Indarkeriaren aurkako borrokan segurtasuna eta biktimen atentzioa indartuko ditugu.

10. Hirian ohitura osasungarriak sustatu, jarduera fisikoaren eta kirol praktikaren, eta emakumeek berdintasunean kirolean parte hartzearen bidez

- Osasuna sustatzeko programak ezarri, kirol-jardueraren bidez, Osakidetzarekin, gizarte-zerbitzuen sarearekin eta beste erakunde batzuekin, kirola eginez, eta, aldi berean, kirola gizarteratzeko tresna egokia erabiliz.
- Ohitura osasungarriak sustatzea jarduera fisikoaren eta emakumeek kirolean parte hartzearen bidez.
- Goi mailako emakumezkoen kirola babestuko dugu eta Donostia arlo honetan erreferente den hiria bilakatuko dugu.

4. APLIKAZIO EREMUA

2019-2023 agintaldirako EAJ eta PSE-EE alderdiek izenpetutako gobernu-itun honek Udalaren menpe dauden Udal sail, erakunde eta erakunde publiko guztiei eragiten die, baita Udalak parte hartzen duen gainerako entitateei ere.

Udala:

- Idazkaritza
- Kontu-hartzailletza
- Ogasun eta Finantza zuzendaritza
- Lege zuzendaritza
- Kanpo ekintza
- Pertsonen zuzendaritza
- Lehendakaritza
- Herritarren partaidetza
- Gizarte sustapena
 - Berdintasuna
 - Kooperazioa eta Kultur Aniztasuna
 - Giza Eskubideak
 - Hezkuntza
- Euskara Zerbitzua
- Hirigintza
- Proiektu eta Obrak
- Mugikortasuna eta Garraioa
- Ingurumena
- Hiri-mantentze eta zerbitzuak
- Udaltzaingoa
- Suteen Babeserako eta Itzaltze Zerbitzua

Erakunde autonomoak:

- DonostiaTIK
- Donostia Kirola
- Musika eta Dantza Eskola

Enpresa Erakunde Publikoak:

- Etxegintza
- Donostia Kultura

Udal sozietateak

- Donostia Turismo
- Donostiako Sustapena
- Anoeta Kiroldgia, SA
- Hileta Zerbitzuak,SA
- Eguzkiza, SA
- Donostiako Tranbia Konpainia
- Balnearioaren Sozietatea

Donostiako Udalak parte hartzen duen gainerako entitateak (partzuergoak, mankomunitateak, sozietateak, fundazioak...) Donostiako Nazioarteko Zinemaldia eta Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa ere itun honen aplikazio esparrukoak dira.

5. GOBERNU ITUNA HEDATZEA

Sinatzen dugun gobernu-itunak estrategiaren garapena bultzatu nahi du, kudeaketa-elementuekin eta epe labur eta ertainerako planifikazio-tresnekin, ondoren zehazten diren hauek:

- Epe laburrean, lehen 100 egunetarako neurriak.
- Epe ertainean, Gobernu Plana 2019-2023 agintaldirako, zeinak markatuko baititu zeharkako planen lehentasunak.
- Gobernu Planaren hedapena arlo bakoitzeko plangintza-tresnen bidez egingo da, Zuzendaritza, Sail, Zerbitzu, Erakunde edo Erakunde Publiko bakoitza planifikatzeko tresnen bidez, eta honako hauek izango dira:
 - Urte anitzeko kudeaketa-planak.
 - Urteko Kudeaketa Planak, finantza-babesarekin, aurrekontuak gehituz.
 - Planen jarraipena egitea beharrezkoa da; aurreikusitakoa betetzen den baloratzeko; a ezarritako helburuak bermatuko dituzten neurri eguneratuak hartzeko.
 - Herritarren aurrean kontuak ematea Gobernu Planean eta udal-kudeaketan hartutako konpromisoei, gardentasun-printzipioa bermatuz.

6. UDAL GOBERNUA

Tokiko Gobernu Batzordea

Eneko Goia Laso	Alkatea
Nekane Arzallus Iturriza	Lehen Alkateordea
Ernesto Gasco Gonzalo	Bigarren Alkateordea
Marisol Garmendia Beloki	Hirugarren Alkateordea
Juanra Viles Mitxelena	Laugarren Alkateordea
Jaime Dominguez-Macaya Lournaga	Tokiko Gobernu Batzordeko Idazkaria
Pilar Arana Perez	Tokiko G. B.ko Idazkariaren lehen ordezkoa
Aitziber San Roman Abete	
Martin Ibabe Eceiza	
Enrique Ramos Vispo	Tokiko G. B.ko Idazkariaren bigarren ordezkoa

Delegazioak

Nekane Arzallus Iturriza
Hirigintza Jasangarria eta Etxebizitza

Juanra Viles Mitxelena
Lehendakaritza eta Gobernantza

XXX

Auzo eta Zeharkako Proiektuetara atxikitutako zinegotzia

Pilar Arana Perez

Mugikortasuna eta Garraioa

Jaime Dominguez-Macaya Lournaga

Ogasuna eta Finantzak

Aitziber San Roman Abete

Gizarte Ekintza

Martin Ibabe Eceiza

Kirola, Herri Segurtasuna eta Herri Babesa

Jon Insausti Maisterrena

Kultura eta Euskara

Ernesto Gasco Gonzalo

Garapen Ekonomikoa, Merkataritza, Ostalaritza eta Turismoa

Marisol Garmendia Beloqui

Gune Publiko eta Hiri Proiektuak

Miguel Ángel Díez Bustos

Gune Publikoetara atxikitutako zinegotzia

Enrique Ramos Vispo

Ekologia, Hezkuntza eta Gazteria

Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Berdintasuna, Solidaritatea eta Eskubide Zibilak

Horregatik guztiagatik, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek dokumentu honetan jasotakoa garatzeko konpromisoa hartzen dute:

Donostian, 2019ko ekainaren 18an.

Eneko Goia Laso
EAJ-PNV

Ernesto Gasco Gonzalo
PSE-EE
